



MINISTERIO  
DEL INTERIOR



# IBILGAILU HISTORIKOEN MATRIKULAZIOA

**GARRANTZITSUA:** Edozein buruzagitzatan izapidea egin baino lehen, aurretiko zita eskatu behar duzu.

NOTA INFORMATIVA

- **Eskaera:** inprimaki ofizialean. ([www.dgt.es/orrialdean/inprimaki/eskuragarria](http://www.dgt.es/orrialdean/inprimaki/eskuragarria))
- **Tasa** 97,80 €, ziklomotoreak izan ezik, hauek 27,30 €. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik).
- **Interesdunaren identifikazioa:**
  - Pertsona fisikoak: dokumentu ofiziala, tituludunaren nortasuna etah elbidea egiaztatzen dituen (NAN, gida-baimena espainiarra, egoitza-txartela, pasaporte gehi Atzerritarren Identifikazio Zenbakia).
  - Pertsona juridikoak: elkartearen identifikazio fiskalaren txartela eta ordezkapena egiaztatzea eta sinatzen duen nortasuna ([Eredu eskuragarria](#) [www.dgt.es/orrialdean](http://www.dgt.es/orrialdean))
  - Adingutxikoak edo ezgaituak: aita, ama edo tutorearen datual eta sinadura, bere NAN.-a eta iharduten duten kontzeptua egiaztatzen duen dokumentua.
- Autonomia Erkidegoaren erakunde eskumendunaren **Ebazpena**, "historiko" bezala zerrendatuz.
- **Ibilgailuaren dokumentazioa:**
  - Ikuskaketa teknikoaren txartela, non ibilgailu historiko bezalako matrikulazioa agertarazten den.
  - Ibilgailuaren koloretako lau argazki (bi alboak, aurrealdea eta atzealdea).
  - Zirkulazio-baimena eta IIT txartela (originala eta fotokopia), ibilgailua zirkulazioan badago.
  - Ibilgailuaren atzerriko agiriak (originala eta fotokopia), ibilgailua este herrialde batekoa bada.
- **Ibilgailuaren jabegoaren egiaztapena jatorrizko dokumentazioan** gertzen dena eta matrikulatzea doana ez denean tituludun bera: *Dokumentu notariala:* agerpen edo manifestazioen akta. Erosketa faktura salerosketa edo pertsona juridiko bati erosten bazaio. Ibilgailua EBkoa edo hirugarren herrialde batekoa bada eta faktura salerosketa espainiarrekoa, JEZa ekarri beharko da edo europar erkidego barneko eragiketa ondorioetarako BEZeko subjektu pasiboaren erroldan sartuta egotearen egiaztapena. Salerosketaren kontratua, norbanakoen artean bada salmenta.
- **Garraio-ziurtagiria:** autobusa edo 6 tona baino handiagoko BGMko eta 3,5 tona baino handiagoko zamarako salgaiak garraiatzeko ibilgailua bada, DGTren Ibilgailuen Erregistroan egiaztapen telematikoa izan ezik.
- **Zergak:**
  - Eskatzaileak bere helbidea duen Udaletxearen Zirkulazio-Zergaren ordainketa edo esentzioaren egiaztapena. (original edo fotokopia).
  - Ordainketa/esentzioa/Garraio-Bitarteko Zehatzei buruzko Zerga Bereziaren atxekipena ez dagoenaren Egiaztapena (Zerga-Agentzia Estatalaren 567, 06 edo 05 ereduak, [www.aeat.es](http://www.aeat.es)) ibilgailua ez bada lehendik Espainian matrikulatuta izan.
  - Igorpen Patrimonialaren ordainketa edo esentzioaren egiaztapena (partikularren arteko kontratua edo dokumentu notariala aurkezten bada).
- Dokumentu Bakar Administratibo (DBA) Aduanak emandakoa, hirugarren lurraldetik inportatuta datorren ibilgailua denean.

**OHARRA:** *Izapidea titularrak aurkezten ez badu, honek sinatutako baimena eta bere NANA beharrezkoa izango dira, non doaneko izaera adieraziko den ([www.dgt.es](http://www.dgt.es)-n eredu eskuragarria).*

*Goian eskatutako daturen batek frogagiri fede-emailea ez badu, dokumentazio gehigarria eska daiteke.*

Eguneratua: 2018/07/05